



A ERANSKINA

Ordezko gaien egutegia eta orduak

Ez da esleipena aurrez aurre egiteko saioa egingo. Behin fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietako langileei ekainean ikastetxe esleipena egin eta gero, ondorengo egutegiaren arabera telematikoki esleitzeko prozesu batean emango dira bete beharreko lanpostuak:

A.1.- Ordezko gaiak zerrendan duten lan-egoera jasotzen duen behin-behineko zerrenda.

Ordezko gaien lan-egoera jasotzen duen zerrenda ebazpen honekin batera eranstean da B. Eranskin gisa (<http://www.irakasle.eus> web orrialdean argitaratuta).

A.2.- Prozesuan eskainitako lanpostuen behin-behineko zerrenda.

Esleituko diren behin-behineko lanpostuen zerrenda hasiera ebazpen honekin batera eranstean da C. Eranskin gisa.

A.3.- Lanpostua aukeratzeko fasean derrigorrean parte hartu behar izateko muga-puntuazioa.

Hasierako ebazpen honetan argitara ematen da zein puntuaziotik gora lanpostua aukeratzeko fasean derrigorrean parte hartzen den.

A.4.- Lurralde historikoa, destinoa eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea.

Uztailaren 6ko 09:00etatik uztailaren 9ko 14:00ak arte, izango da lurralde historikoa, destinoa (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea.

Eskaera telematikoki aurkeztu behar da (<http://www.irakasle.eus>).

A.5.- Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda argitara ematea

Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda argitara emango da 2020ko uztailaren 10ean, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioetarako (<http://www.irakasle.eus>).

A.6.- Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak 2020ko uztailaren 10etik 2020ko uztailaren 17ra arte izango da.

A.7.- Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin betiko zerrenda argitara ematea

Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin betiko zerrenda argitara emango da 2020ko uztailaren 23an, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioetarako (<http://www.irakasle.eus>).



A.8.- Lan egoeraren aldaketa eta hizkuntza-eskakizuna aldatu (euskara).

2020ko abuztuaren 13ra arte ordezkogaiek zerrendetan haien lan-egoera aldatu ahal izango dute eta hizkuntza-eskakizuna (euskara) aldatu geroagoko arrazoiengatik.

Horretarako, posta elektronikoa bidali behar dute Lurralde Historiko bakoitzeko honako helbide elektronikoetara: arabaei@euskadi.eus, eigipuzkoa@euskadi.eus y bizkaiaei@euskadi.eus. Posta elektronikoko horretara idazki sinatua eta NANaren kopia erantsi beharko da.

A.9.- Parte hartzaileen behin-behineko zerrenda.

Behin-behineko parte-hartzaileen zerrenda 2020ko abuztuaren 17an argitara emango da (<http://www.irakasle.eus>).

A.10.- Parte hartzaileen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak 2020ko abuztuaren 18ko 09:00ak arte izango da.

A.11.- Parte hartzaileen behin betiko zerrenda.

Behin-behineko parte-hartzaileen zerrenda 2020ko abuztuaren 18an argitara emango da (<http://www.irakasle.eus>).

A.12.- Prozesuan eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda.

Esleitu beharreko lanpostuen zerrenda 2020ko abuztuaren 18an Hezkuntza Sailaren web orrian argitara emango da (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.13- Parte hartzeko eskaera egiteko epea.

2020ko abuztuaren 19ko 09:00etatik aurrera irekiko da irakaslegunean eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzeko epea eta 2020ko abuztuaren 21eko 15:00etan bukatuko da.

A.14.- Esleipenari buruzko behin-behineko ebazpena.

Behin-behineko ebazpena 2020ko abuztuaren 25ean argitaratuko da 11:00etan Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.irakasle.eus>).

A.15.- Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak 2020ko abuztuaren 25eko 11:00etatik 2020ko abuztuaren 26ko 11:00ak arte izango da.

A.16.- Behin betiko ebazpena.

Behin betiko ebazpena 2020ko abuztuaren 28an argitara emango da Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.irakasle.eus>).

A.17.- Eraginkortasun data.

Esleitutako lanpostua 2020ko irailaren 1eko eraginkortasuna du.